



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko maiatzaren 15a

70. ZK.

### A U R K I B I D E A

F SAILA:

**Galderak:**

- 11-24/PES-00075. Galdera, Erriberako autobus-lineak berregituratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-24/PES-00076. Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzaitzaren organigramari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-24/PES-00077. Galdera, Bidean-Transporte Sanitario de Navarra SL sozietate publikoa abian jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-24/PES-00079. Galdera, Ega eta Urederra ibaietako Kontserbazio Bereziko Eremuaren Gidaritza Batzordea eratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-24/PES-00080. Galdera, 2023an lan-istripuen kopurua igo izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-24/PES-00081. Galdera, "bibliobusa", "bilibioneta" eta gisako zerbitzuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-24/PES-00082. Galdera, zerbitzu publikoetarako azpikontrataturiko enpresetan hitzarmen kolektiboak betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-24/PES-00083. Galdera, lizitazio-epeak bete ez dituzten hiru proiekturi buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-24/PES-00084. Galdera, Inklusio eta Gaikuntza Digitalerako 2021-2025 Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-24/PES-00085. Galdera, azken inauterietako ostiralean Iturramako institutuan egindako kontzertuan oihukatutako mezuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-24/PES-00086. Galdera, azken inauterietako ostiralean Iturramako institutuan egindako kontzertuan oihukatutako mezuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-24/PES-00087. Galdera, Kontratazio Administratiboko Batzordea arautzen duen ekainaren 26ko 74/2019 Foru Dekretua aldatzeko foru dekretuaren onespeneren berandutzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—11-24/CCO-00014. Nafarroako Kontseiluaren 2023ko urteko kontuen fiskalizazio-txostena, Kontuen Gantzerak egina (17. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-24/PES-00075. Galdera, Erriberako autobus-lineak berregituratzeari buruzkoa****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Daniel López Córdoba jaunak Erriberako autobus-lineak berregituratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 16ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Daniel López Córdoba jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Erriberako autobus-lineak berregituratzeari buruz (11-24/PES-00075); zehazki, honi buruz:

Erriberako zenbait udal haserre agertu dira 2023an abian jarri ziren autobus-linea berriek ez dituztelako eskualdearen beharrianak asetzen; izan ere, herri horiek eta Iruña lotzeko autobusen maiztasunaren urritasunak derrigorrezkoa egiten du Tuteran autobusez aldatzea. Egoera hori bereziki larritzat jotzen dute Iruñera kontsultara edo tratamendua jasotzera joan behar duten gaixoen eta zaharren kasuan, zeren Tuteraraino joan behar dute, han autobusez aldatu eta kasurik gehienetan Tafallan nahitaez gelditu, halako moduan non are gehiago luzatzen baita bidaiaren denbora. Gauzak horrela, ukitutako udal batzuek eta herritarren plataformek departamentuari erreklamatzeko diote berriz azter ditzan Erriberako 24.000 pertsona ingururi eragiten dieten lineak eta maiztasunak. Zehazki, Fitero eta Iruña lotuko lukeen linea zuzen bat, ukitutako gainontzeko herrietatik igaroko litzatekeena (Fitero, Cintruénigo, Corella eta Castejón) eta beste linea batzuetako maiztasunaren antzekoa izanen lukeena (Funes, Caparros, Zarrakaztelu edo Irurtzun).

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dugu: Departamentuak pentsatuta al du linea horiek berrantolatzea eskualdearen garraio-eskariari erantzuteko eta Iruñearekin zuzenean lotzeko? Bestela, zer konponketa proposatzen du eskualdean dagoen arazoa konpontzeko?

Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Lurralde Kohesiorako Departamentuak, Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, 2023ko martxoaren 1ean jarri zuen martxan Iruñea, Tuter eta Zaragoza arteko emakida.

Emakida horrek, Tuteran autobusez aldatuta, egunean lau maiztasun ahalbidetzen ditu Fitero, Corella eta Cintruénigoren artean Iruñearekin eta beste lau Zaragozarekin. Zerbitzu horiek zuzenekoak baino azkarragoak ez badira ere, zerbitzuaren antolaketak aukera ematen die erabiltzaileei Iruñera eta Zaragozara joateko maiztasun gehiago izateko.

Zuzeneko zerbitzuei dagokienez, emakida berria martxan jarri arte ematen ziren berberak mantenduko dira. Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusia jakitun da udalerririk horien eta Iruñearen artean zerbitzu zuzena eman behar dela, eta, horregatik, gaur, astelehenean, 2024ko martxoaren 4an, zerbitzu berri bat jarri da martxan goizeko lehen orduan, dagoen eskariari erantzuteko. Zerbitzu berri hori Fiteron hasten da 06:45ean (geltokia du Cintruénigo eta Corellan eta ez du geltokirik Tafallan) eta 08:15ean iristen da Iruñera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, datuak babesteko legedian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan

jasotako xedeetarako soilik erabiltzen ahalko da emandako edukia, eta betebeharra egonen da Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari men egiteko.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

---

## **11-24/PES-00076. Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzailetzaren organigramari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzailetzaren organigramari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 16ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak 11-24/PES-00076 galdera egin du, idatziz erantzun dakion Hona galdera eta

Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzailetzaren organigrama mantenduko da ala aldatu egingen da, batez ere Zainketen, Etxeko Arretaren, Arreta Soziosanitarioaren eta Ekintza Komunitarioen Zuzendariordetzari dagokionez?

Jakinarazten da ez dagoela aurreikusita Osasun Sistema Nazionaleko Zainketa Sanitarioen Zuzendariordetzaren organigrama aldatzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 20an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## 11-24/PES-00077. Galdera, Bidean-Transporte Sanitario de Navarra SL sozietate publikoa abian jartzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Bidean-Transporte Sanitario de Navarra SL sozietate publikoa abian jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 16ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz jaunak idatziz galdera egin du Bideani buruzko informazioa eskuratzeko (11-24/PES-00077). Hona galdera eta Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz erantzuten duena:

1. Zer urrats falta dira egiteko Bidean-Nafarroako Osasun-garraioa enpresa jardunean aritu ahal izan dadin?

Azken administrazio kontseiluan ezarritako kronogramaren arabera, hamabi hilabeteko proiektioarekin lan egiten da, eta behar diren urratsak ematen dira enpresa publikorako trantsizioa alderdi guztientzako berme guztiekin egin dadin: pazienteak, langileak eta sistema.

2. Enpresa publiko horren ardura duen aldetik, Osasun Departamentuak hasi al du elkarrizketarik edo negoziatorik osasun-garraioaren sektoreko sindikatuekin, zerbitzu hori une honetan enpresa pribatuetan ematen duten langileak subrogatzeko?

Bai. Sindikatu guztiekin hitz egin da eta etengabeko komunikazioa mantentzen ari da. Subrogazioa eginen da horretarako gunea, digitalizazioa eta sistema berriak daudenean.

3. Subrogazioak garraio zerbitzu hori ematen ari ziren enpresa pribatuetako beste aktibo batzuk

ukituko al ditu? Horiek identifikatuta al ditu enpresak? Zeintzuk dira?

Hasiera batean, anbulantzia programatu eta urgenteen jardueran eginen da subrogazioa, ordu-ra arte egin izan den bezala. Beranduago, beharrezkoa bada, ekintza berriak baloratuko dira.

4. Enpresa publikoak nola eman nahi du osasun garraioaren zerbitzua? Egungo jarduketa-eremuak mantenduko al dira antolamenduari dagokionez (Iruña/Baztan-Bidasoa-Altsasu/Lizarratfalla/Zangoza-Erronkari-Zaraitzu eta Tuterat)? Larrialdietako garraioaren baseak gaur egungo leku beretan egonen al dira?

Logistika eta ibilbideen kudeaketari dagokien kontu guztiak ebaluatzen ari dira pazienteentzat garraio sistema eraginkorra eta segurua sortzeko.

5. Larrialdietako osasun garraioari dagokionez, bat egiten al duzu Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko langileen parte hartzeari buruz Kontuen Ganberak egiten duen balorazioarekin?

6. Enpresa berriak errespetatu eginen al du Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren parte hartzea, Nafarroan urteetan zehar egin den moduan?

Suhiltzaileen zerbitzua larrialdi sistemaren parte da eta balio erantsia dira harentzat, eta horrela aztertzen ari da. Horren parte hartzea ez da zalantzan jartzen larrialdiko garraioetan.

7. Larrialdietako osasun garraioan aurrerantzean ere koordinatuko da Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren parte hartzea, gaur egun SOS Nafarroa-112 Larrialdien Zentroaren bidez egiten den moduan?

Bideanek ez du eskumenik gai horri dagokionez.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 29an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## **11-24/PES-00079. Galdera, Ega eta Urederra ibaietako Kontserbazio Bereziko Eremuaren Gidaritza Batzordea eratzeari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Ega eta Urederra ibaietako Kontserbazio Bereziko Eremuaren Gidaritza Batzordea eratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 16ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-24/PES-00079 informazio eskaera egin du, Ega eta Urederra ibaietako kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) gidaritza batzordearen eraketari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak noizko aurreikusten du eratzeari buruz Ega eta Urederra ibaietako kontserbazio bereziko eremuko (KBE) gidaritza batzordea?

Ega eta Urederra ibaietako kontserbazio bereziko eremuko (KBE) gidaritza batzordea eratzeko bilkura martxoaren 7rako deitu da.

2. Zerk eragin du departamentuak ezer ez egi-  
tea eta 2021etik hona aldiro esatea gidaritza batzorde hori eratzeko zela baina orain arte eratu ez izana nahiz eta izendaturik dauden batzordea osatuko duten entitateak?

Aipatutako batzordea eratzeko bilkurarako deialdirik egin ez izanaren arrazoi bakarra da baliabide erabilgarriak mugatuta daudela eta Natura 2000 sareari buruzko gaiez arduratzen den unitatearen lan-karga handia dela. Izan ere, iraungitako kontserbazio bereziko eremuen kudeaketen planak berritzeko lanei eman behar izan zaie lehentasuna, eta horrek hasieran aurreikusitakoa baino ardua handiagoa eskatzen du.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## 11-24/PES-00080. Galdera, 2023an lan-istripuen kopurua igo izanari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak 2023an lan-istripuen kopurua igo izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 16ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak 11-24/PES-00080 galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion, honako honi buruz:

- Kontseilariak zer balorazio egiten du Nafarroan 2023an lan-istripuen kopurua handitu izanaz? Izan ere, abenduaren erdialdean, Eskubide Sozialetako Batzordean egindako agerraldian adierazi zuen lan-istripuen kopurua jaitsi eginen zela 2023an.

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Lehenik eta behin, eta zure galdera erantzute aldera, Nafarroako Parlamentuko Bilkura Egunkarian zure galderari buruz jasotako eduki zehatza transkribatuko dugu:

“Ez dizkizuet datu asko emanen, baina, tira, gustatuko litzaidake, prebentzio ordezkararen irudia zein den adierazi eta izan dugun esperientziaren inguruan sakondu aurretik, 2022ko urtarriletik abendura eta 2023ko urtarriletik azarora bitartean erregistratutako lan istripuen konparazioa aipatzea, abendua oraindik ez baita amaitu.”

2023ko urtarrilaren 1etik aurtengo abenduaren 11ra arte, honako hau jaso da SISLANAN: baja behar izan duten 11.325 lan istripu, 11 hilgarri, 5 oso larri, 58 larri eta 11.252 arin; 2022ko aldi berean, aldiz, urtarriletik azarora bitartean, baja

behar izan duten 11.507 lan istripu, 14 hilgarri, 4 oso larri, 86 larri eta 11.403 arin. Zenbaki absolutuei dagokienez, 2022 urtearekin alderatuta, 2023an baja behar izan duten 182 lan istripu gutxiago egon dira azarora arte, esan dudan moduan, eta 151 istripu arin gutxiago.

Kasu larriak ere gutxiago egin dira, aldi berean 28 gutxiago egon dira eta, kasu hilgarriak, aldiz, momentuz hiru gutxiago dira. Halaber, 2022 urtearekin alderatuta, baxerik behar izan ez duten istripuak 1.496 gutxiago izan dira. Datu larrienetako batzuetan hobekuntza txikiak egon diren arren, 2023an lanaldian gertatutako 33 lan istripu ikertu dira, larriak, oso larriak eta hilgarriak, eta lan arrazoiei egotz dakizkieke, hau da, in itinere ez diren lan istripuak izan dira.

Testuinguru horretan, istripuak industrian gertatzen dira gehien eta, bigarrenik, sektoreka sailkatuta, eraikuntzan. Modurik ohikoena altuerako erorikoak dira, batez ere eraikuntzan eta industrian. Ondoren datoz zanpatzeak (industrian gertatzen dira gehienbat) eta objektu materialen zuzeneko kolpeak.

Ziurrenik, aurtengo indizeak, abendua amaitzeko geratzen diren egun hauetan gerta litekeen ustekabeko egoera salbu, 2022 urtearekin alderatuta, gutxiago egingen dira.

Indizeen murrizketaren inguruan aipatu diren hitzak istripu larri eta hilgarrien kopuruari mugatzea zen helburua, 2023 urtearen bukaeran behar akada jasan baitute. Horrela, 2023ko txostenaren datuen arabera, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Lan Osasunaren Zerbitzuaren laneko istripuei buruzkoak, istripu larriak % 30,26 gutxitu ziren. Istripu hilgarriei dagokienez, berriz, 2022an 14 egon ziren eta 2023an, 11.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 6an.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafraña

## 11-24/PES-00081. Galdera, "bibliobusa", "biblioneta" eta gisako zerbitzuei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak "bibliobusa", "biblioneta" eta gisako zerbitzuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 23ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak idatzizko galdera egin du (11-24/PES-00081), honako hau jakiteko: "Nafarroan, egun, zenbat "bibliobus", "biblioneta" eta gisako zerbitzu ematen dira eta zenbat gehiago jarri nahi ditu abian departamentuak 2024an zehar?". Hona hemen Nafarroako Gobernuako Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

#### Biblioneta Aurizberrin

Etxez etxeko liburutegi zerbitzu hori 1998az geroztik eman izan da liburuzainaren autoarekin, eta 2018an finkatu zen horretarako ibilgailua erosi eta zereginerako egokitu zenean. Haztapenei buruzko informazio gehiago eskuratzeko honako helbide honetara jotzen ahal da:

<https://bibliobuses.com/wp-content/uploads/documentos/Proyecto%20Berragu.pdf>

Berragu izeneko esperientzia hori etxez etxeko liburutegi zerbitzua da, eskatutako dokumentuak etxera bertara eramateko, Pirinioen eremua landa ingurune aski sakabanatua baita. Meritu handiko ekimen arrakastatsua izan da (Estatuko hainbat sari jaso ditu), liburutegi zerbitzuak 3.000 biztanle potentzialeko talde bati emana, lau ibarretan, 30 kontzejutan eta 15 udalerritan (udalak) zehar. Udalez gaindiko esparrua izateaz gain, mugaz gaindiko ere bihurtu da, Frantziako Arnegi udalerria ere sartu baita.

Ibilgailua berori erosteko 20.000 euroko aurrekontuko partida espezifikoko baten kargura erosi zen (A21001 A2400 6042 332200 Ibilgailu bat erostea liburutegiak hedatzeko proiekturako), 2018ko aurrekontuan.

Honako toki hauetatik pasatzen da:

– Auritzko Udala (262 biztanle)

– Erroibarko Udala (Aurizberri, Mezkiritz, Ureta, Bizkarreta-Gerendiain, Lintzoain, Erro, Zilbeti, Orondritz, Loizu, Aintzinoa, Esnotz, Urniza, Larraingoa, Ardaiz) (752 bizt.)

– Aezkoako Batzarre Nagusia (Garralda, Aribe, Aria, Garaioa, Hiriberri, Abaurrepea, Abaurregaina, Orbara, Orbaizeta) (912 bizt.)

– Artzibarko udala (Garralda, Olaldea, Betelu, Lakabe, Nagore, Zandueta, Uritz, Urdirutz, Imizkotz, Saragueta, Arrieta, Hiriberri, Lusarreta) (264 bizt.)

– Luzaideko Udala (377 bizt.)

– Orreagako Kolegio Eliza (32 bizt.)





### Estellerriko bibliobusa

Martxan jarri zen 2020an, ibilgailua erosi zenean, Mercedes Benz Sprinter 314 CD tTI Furgón Largo, con cargo a la partida bat, hain zuzen, 2020ko Gastuen Aurrekontuko partidaren A21001 A2400 6042 332200 “E) Ibilgailu bat erostea liburutegiak hedatzeko proiekturako” deritzon 55.000 euroko partidaren kargura.

2021 eta 2022 urteetan zehar ibilgailuaren barnean beharrezko egokitzapenak egin ziren liburutegiko espazio erosoak izan zedin; liburuak, filmak eta aldizkariak bilduma eskuratu, eta, batez ere, liburuzainaren bi lanpostu sortu ziren.

Egiaz abian jarri zen 2022ko urrian, 28 herritan barrena ibiltzen hasi zenean, eta herrien kopuru hori handituz joan da gero.

Zortzi ibilbide egiten ditu 2024ko urtarrilaz geroztik; guztira, 51 herritara eta 8.500 biztanle ingururengana heltzen da. Ibilgailuak 900 dokumentu daramatza (liburuak, aldizkariak et DVDak), eta 6.400 inguru daude biltegian; bilduma guxtienez ere 8.000 dokumentukoa izatea lortu nahi da.

Zerbitzuari buruzko triptiko informatiboa erantsi da.

Hauek dira ibilbideak eta 51 herriak:

- Deierri: Abartzuza, Ugar, Villanueva, Riezu, Iturgoien, Lezaun

- Urederra: Zudairi, San Martin, Eulate, Bakedano, Larrion, Bearin

- Trenbidearen ibilbidea: Metauten, Zufia, Antzin, Legaria, Oko, Murieta

- Jurramendi: Deikaztelu, Arellano, Morentin, Muniain, Aberin, Lakar, Lorka

- Kodes: Santsol, Desoio, Torralba del Río, Esprontzedo, Bargota, Elizagorria

- Ruta del Camino: Iratxe, Iguzkitza, Azketa, Vaillamayor, Lukin, Villatuerta

- Berrotza: Mues, Mirafuentes, Nazar, Acedo, Zuñiga, Gastiain, Galbarra

- Muga: Aras, Aguilar, Meano, Lapoblación, Marañón, Cabredo, Genevilla

### Zerbitzua Leitzako Liburutegitik

Liburuzainaren ekimenez, liburutegi horrek liburuak lagatzen dizkie Arano, Goizueta eta Are-soko herriei. Une honetan, bere ibilgailu partikularrean egiten du, eta Euskararen Mankomunitateak ordaintzen ditu kilometrajeko gastuak.

Urte honetarako, Liburutegi Zerbitzuan maileguak egiteko material informatikoa erosteko modua egituratzen ari gara.

2024rako aurreikuspenak eta jarduketak

2024rako Aurrekontuen Aurreproiektua onesteko dago, eta bertan bi aurrekontuko partida jaso dira:

– A21001 A2400 6042 332200 Ibilgailuak erostea eta egokitzea liburutegiak hedatzeko proiekturako. Bibliobusa (105.000 euro).

– A21001 A2400 6042 332202 Ibilgailu bat erostea liburutegiak hedatzeko proiekturako. Biblioneta (25.000 euro).

Aurrez egindako aurreikuspenen arabera, bibliobusak artatu beharreko tokiak Nafarroako Erdialdean daude, Zangozako eta Tafallako eskualdeetan.

Biblionetari dagokionez, Erronkariko eremua jaso zen aurreikuspenetan, eta, gertakarien ebidentziagatik, Leitzako Liburutegitik artatutako eremua gehitu behar da, eta handitzen ahal da.

Aurreko urteetan eta proiektuetan lortutako esperientziarekin, helburua izaten ahal da 2024ko jarduketak ibilgailuak erostean gauzatzea, eta, hala badagokio, ibilgailua liburutegiko espazio bihurtzeko lehen fasea ere egitea. Horretarako, askotariko elementuak landuko dira, hala nola baterien egokitzapena, estaldura, argiztapena, erosotasuna eta autonomia, beste egokitzapen batzuei ekiteko lehen urrats gisa, hala nola apala-

tegiak eta bilduma gordetzeko eta jendeari arreta emateko beste elementu batzuk jartzea.

Alde horretatik, adierazi behar da ibilgailua Ibilgailu Parkeak erosten duela, eta harekin harremanetan gaudela, eta aurreratu digutela zer konplexua den merkatua mota horretako ibilgailuak erosterakoan.

Zeregin horiek 2025ean gauzatu beharko dira, ezinbestean, gutxienez bibliobusa abian jartzeko. Gainera, dokumentu funtsak eskuratu eta prozesu teknikoa egin beharko dira, eta, batez ere, liburutegietako arduradunen plantillan plazak sortu, hori gabe ezin baita liburutegi proiekturik planteatu.

Jarduketa horiek guztiek, 2024tik aurrera, dagokien aurrekontu zuzkidura ere beharko dute.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 5ean

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## 11-24/PES-00082. Galdera, zerbitzu publikoetarako azpikontrataturiko enpresetan hitzarmen kolektiboak betetzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak zerbitzu publikoetarako azpikontrataturiko enpresetan hitzarmen kolektiboak betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 23ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du –2024ko otsailaren 19ko 1451 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– zerbitzu publikoen azpikontrataturiko enpresen hitzarmen kolektiboen betearazpenari buruzko informazioa eskatzeko (11-24/PES-82). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Kontratu hori arautzen duen baldintza agiriak, Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratu zenak, legez xedatutako mekanismo guztiak ezartzen ditu, langileen babes bermeak betetzeko. Mekanismo horien artean daude ez-betetzeagatiko zigorrak ezartzea eta, hala badagokio, kontratatzeke debekua hartzea.

Unitate kudeatzaileak, kontratua behar bezala gauzatzen dela ikuskatzeko duen betebeharraren arabera, aurreikusitako mekanismo guztiak aplikatzen ditu, kontratazio publikoa arautzen duten printzipioen arabera.

Zehazki, kasu honetan, unitate kudeatzaileak, dagozkion kudeaketa administrariboen ondoren, Omega Servicios Especializados SL enpresari zigorra ezartzea proposatu du, eta onesteko prozedura izapidetzen ari da, kontraesaneko prozedura baten eskakizunen arabera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

## 11-24/PES-00083. Galdera, lizitazio-epeak bete ez dituzten hiru proiekturi buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak lizitazio-epeak bete ez dituzten hiru proiekturi buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 23ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du lizitazio epeak bete ez dituzten hiru proiekturi buruz (11-24/PES-00083). Honako hau dio:

“C1.11-CCAA osagaiari dagokionez: Autonomia erkidegoek eta Ceuta eta Melillako hiriek inbertsio-proiektuak zuzenean egitea, edo beste administrazio edo entitateekiko hitzarmen bidez, metropoli inguruneetan isurketa gutxiko eremuak sortzeko edo funtzionatzeko helburuari begira edo garraioaren eraldaketa digitalari edo jasangarriari begira lagungarriak direnak (Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 1. inbertsioko 1. azpi-neurria). Nafarroarako aurreikusten den finantzaketa 12.541.000 eurokoa da, "isurketa gutxiko eremuak metropoli-inguruneetan":

Hiru proiektu daude deialdian ezarritako lizitazio epeak (2023-03-31) eta esleipen epeak (2023-12-31) bete ez dituztenak.

1.- Zertan dira hiru proiektu horiek?

2.- Proiektuak bete ahal izanen dira azkenean?

3.- Zer babes juridikorekin egiten ahalko dira hiru proiektu horiek, epeak bete ez diren arren?" Hona hemen Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak horri guztiari buruz ematen duen informazioa:

1. galdera:

Aretako industrialdea, Burlata eta Erripagañako urbanizazioa konektatzeko bidea egokitzeko eta urbanizatzeko proiektua: obren esleipena izapidetzen ari da. Martxoan esleitzea aurreikusten da.

Donejakue Bidea eta Zizur Txikia konektatzeko bizkleta eta oinezkoentzako bidearen proiektua: martxoan argitaratuko da lizitazioa, kontratazio atarian.

Uharte eta PA-30 errepidea konektatzeko bizkleta eta oinezkoentzako bidearen proiektua, 1. fasea: proiektuaren behin betiko onespena izapidetzen ari da.

2. galdera:

Bai. Proiektuak bete ahal izanen dira azkenean.

3. galdera:

Ez dira epeak urratu. C111 osagaiari dagokion CID-aren 5. helburua bete da.

C111 osagaia honako jarduera hauetatik elikatzen da: 1. jardueratik (metropoli inguruneetako mugikortasuna eraldatzea) eta 3. jardueratik (gutxiago kutsatzen duten bidaiarien eta salgaien garraio publiko eta pribatuko flota osagarria aldatzea).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, datuak babesteko legedian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jasotako xedeetarako soilik erabiltzen ahalko da emandako edukia, eta betebeharra egonen da Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari men egiteko.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

## 11-24/PES-00084. Galdera, Inklusio eta Gaikuntza Digitalerako 2021-2025 Planari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Inklusio eta Gaikuntza Digitalerako 2021-2025 Planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 23ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Inklusio

eta Gaikuntza Digitaleko Planari buruz (11-24/PES-00084). Hona hemen Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Inklusio eta Gaikuntza Digitaleko Planaren informazio eguneratu guztia ezagutzera eman nuen 11-24/COM00011 agerraldian, zuk eskatuta, eta bertan eman nuen horren xedeen berri.

Horren ostean, hitzaldiarekin batera erabilitako PowerPoint euskarria bidali zitzaizun.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 14an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

## 11-24/PES-00085. Galdera, azken inauterietako ostiralean Iturramako institutuan egindako kontzertuan oihukatutako mezuei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak azken inauterietako ostiralean Iturramako institutuan egindako kontzertuan oihukatutako mezuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 23ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioak aurkeztutako 11-24-PES-00085 galdera idatzari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Gobernuak ba al daki inauterietako ostiralean, Iturramako institutuan, ikastetxeko ikasleendako kontzertu batean, ikasle-talde batek behin eta

berriro oihukatu zuela "ETA, ETA, ETA" No hay tregua kantua abesten zen bitartean?

Hezkuntza Departamentuak jakin du ezen, otsailaren 9an Iruñeko Iturrama BHI ikastetxean, inauterietako jaialdiaren baitako kontzertu batean eta No hay tregua abestia kantatzen zen bitartean, zentroaren kanpoaldetik bideo bat grabatu zela, zeinean ikusten baita "ETA, ETA, ETA" izaten ahal den adierazpen bat aldarrikatzen dela.

Harremanetan jarri al da ikastetxeko zuzendaritzarekin zer gertatu zen jakiteko?

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak (SIE), otsailaren 19tik, hau da, otsailaren 9ko jardunaldiaz geroztik izandako lehenengo eskola egunetik, jarduketak abian jarri zituen ahalik informazio gehien eskuratzeko otsailaren 9ko jardunaldian Iturrama BHI izandako gertakariei buruz.

Zer balorazio egiten du gertatutakoari buruz? Larria dela uste al du?

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntzako kontseilariak Nafarroako Parlamentuaren otsailaren

22ko osoko bilkuran jadanik adierazi zuenez, kondenatu eta gaitzetsi egiten da terrorismoa goresteko eta gorrotozko adierazpen oro.

Inolako erantzukizunik eskatu al dio ikastetxe-ko zuzendaritzari?

Hasierako informazioa lortu ostean, Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak SIEri eskatu zion, ikastetxearekin batera, beharrezko ikerketa guztiak egin zitzala izandako gertakariak argitu eta horren arabera jarduteko, eta jarraibideak eman ziren jarduketek une oro indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen bizikidetzaren arauak eta ikastetxeak berak duen Bizikidetzaren Plana errespetatzeko.

Nork antolatu zuen kontzertua?

Jarduera ikastetxearen Bizikidetzaren Batzordearekin batera antolatu zen (batzorde horretan ikastetxeko ikasle nahiz irakasleek hartzen zuten parte) ikastetxeko urteko programazio orokorraren baitan, inauterietako jaialdiaren jardueren artean.

Ikastetxeko zuzendaritzak noiz izan zuen gertatutakoaren berri?

Ikastetxeko ikuskatzaileak emandako txostenaren arabera, zuzendaritza taldeak adierazi zuen gertakari horien berri izan zutela jaialdia amaitu ostean ikastetxeko irakasleek izandako bazkari batean. Horren amaiera aldera, ikastetxekoa ez zen norbaitek sare sozialetan zegoen bideoaren edukiaren berri eman zien.

Azaldu al zaie ikasleei zer larria den ehunka pertsonaren erailketaren ardura duen talde terroristaren baten siglak oihukatzea?

Duela hamar urte, gutxi gorabehera, Iturrama BHI Nafarroako Memoria Historikoaren Institutuarekin lankidetzan ari da, eta hezkuntzaren arloarekin lotutako jarduerak askotan parte hartu du. 2023ko urtarrilaren 29an, Iturrama BHIko Eskola Kontseiluak onetsi egin zuen ikastetxea Nafarroako Foru Komunitateko Memoria duten eskolak,

bakearen eta bizikidetzaren alde deritzon sarean sartzeko eskaera egitea.

2024ko otsailaren 26an, Hezkuntza Departamentuko Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko Memoria eta Bizikidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren arteko akordioaren babesean eraturako Batzorde Mistoak Iturrama BHI Nafarroako Foru Komunitateko Memoria duten eskolak, bakearen eta bizikidetzaren alde deritzon sarean sartzeko eskaera onetsi zuen.

Bakearen eta Bizikidetzaren aldeko Eskolak Programa "Memoria duten eskolak, bakearen eta bizikidetzaren alde" Hezkuntza Proiektuaren parte da. Proiektu hori Memoria eta Bizikidetzaren Zuzendaritza Nagusiak garatzen du, Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusiarekin lankidetzan. Nafarroako ikastetxeei bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen balioekin lotutako hainbat jarduerak eskaintzean oinarritzen da programa. Esperientzian oinarritutako jardueren eta tailerren bidez, ezagutza, gaikuntza eta ikaskuntza proposatzen dira, metodologia sozioedukati boen bidez, bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntza, terrorismoaren biktimekiko elkartasuna, indarkeria desagerraraztea, gatazken konponbide baketsua, kultura arteko aberastasuna eta desberdinen arteko bizikidetzaren indartzeko eta osatzeko.

Programa horren esparruan, eta zuzendaritza nagusien arteko akordio horretan zehaztutako konpromisoetako bat den aldetik, Iturrama BHIin jarduerak egitea sustatuko da, memoria berreskuratzeko eta eskola komunitatea osatzen duten pertsona guztien arteko bizikidetzaren sustatzeko esperientzia positiboak bermatuko dituen eskola giroa lortzen laguntzeko.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

## **11-24/PES-00086. Galdera, azken inauterietako ostiralean Iturramako institutuan egindako kontzertuan oihukatutako mezuei buruzkoa**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak azken inauterietako ostiralean Iturramako institutuan egindako kontzertuan oihukatutako mezuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 23ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak PES-86 galdera egin du. Hona hemen galdera eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak ematen dioen erantzuna:

– Departamentuak ba al daki inauterietako ostiralean, Iturramako institutuan, ikastetxeko ikasleendako kontzertu batean, ikasle-talde batek behin eta berriro oihukatu zuela "ETA, ETA, ETA" No hay tregua kantua abesten zen bitartean?

– Harremanetan jarri al da Hezkuntza Departamentuarekin edo ikastetxeko zuzendaritzarekin zer gertatu zen jakiteko?

– Zer balorazio egiten du gertatutakoari buruz? Larria dela uste al du?

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskararako Departamentuak edozein motako indarkeria babesten duen nahiz biktimentzat iraingarria izan daitekeen edozein motako adierazpen orori zilegitasuna kentzeko garrantzia berresten du. Adierazitako egintza modukoak gertatzea printzipio horiek lantzen jarraitzeko beharra (departamentu arteko lankidetzan) indartzen du, hainbat programa eta ekimenekin egiten ari garen moduan, hala nola "Memoria duten eskolak, bakearen eta bizikidetzaren alde" hezkuntza proiektuarekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

## **11-24/PES-00087. Galdera, Kontratazio Administratiboko Batzordea arautzen duen ekainaren 26ko 74/2019 Foru Dekretua aldatzeko foru dekretuaren onespeneren berandutzeari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak Kontratazio Administratiboko Batzordea arautzen duen ekainaren 26ko 74/2019 Foru Dekretua aldatzeko foru dekretuaren onespeneren berandutzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 23ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du –2024ko otsailaren 19ko 1456 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– Kontratazio Publikorako Batzordea arautzen duen ekainaren 26ko 74/2019 Foru Dekretua aldatzeko foru dekretua onesteko atzerapenari buruzko informazioa eskatzeko (11-24/PES-87). Hona Ekonomia eta Ogasuneko Departamentuaren kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak ezartzen duenari eta foru dekretu proiektuak egiteko gaineko ordenamendu juridikoak ezarritakoari betebetean jarraikiz izapidetu eta eratu da foru dekretu hori.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren Ondare Zerbitzuak izapidetu du prozesua, erregelamenduzko xedapenaren espedientearen izapidezko gaitasuna duen organoa baita, eta araua egiteko prozesuak iraun behar duena iraunen du izapideak, konplexua baita eta izapidetzeko hainbat eragileren ondoz ondoko jarduketa behar baitu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez



---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**11-24/CCO-00014. Nafarroako Kontseiluaren 2023ko urteko kontuen fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin**

2024ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Kontseiluaren 2023ko ekitaldiko urteko kontuei buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Adieraztea Nafarroako Kontseiluaren 2023ko urteko kontuen fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

**AURKIBIDEA**

I. SARRERA .....	19
II. HELBURUAK ETA NORAINOKOA .....	19
III. IRITZIA.....	20
III. 1 Urteko kontuei buruzko finantza-auditoretzako iritzia.....	20
III.2 Leheria betetzeari buruzko fiskalizazio-iritzia.....	20
IV. IRITZIAREN OINARRIA .....	20
V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK .....	20
VI. NAFARROAKO KONTSEILUAREN ERANTZUKIZUNA .....	21
VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	21
VIII. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA .....	22
1. GEHIGARRIA. NAFARROAKO KONTSEILUAREN 2023KO URTEKO KONTUEN LABURPENA .....	23
1.1 2023ko aurrekontu-likidazioaren egoera-orria.....	23
1.2 Aurrekontu-emaizta .....	23
1.3 Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria.....	24
1.4 Egoera-balantzea .....	24
1.5 Ekonomia eta ondare emaitzako kontua .....	25
1.6 Ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria .....	25
1.7 Diru-fluxuen egoera-orria .....	25
2. GEHIGARRIA. NAFARROAKO KONTSEILUA.....	26
3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA .....	26
4. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK .....	27
4.1 Egindako jarduna .....	27
4.2 Aurrekontu-likidazioa.....	27
4.3 Langileria gastuak eta ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak .....	28

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak, berari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2024rako fiskalizazio-programari jarraituz, Nafarroako Kontseiluaren (aurrerantzean, Kontseilua) 2023ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu.

Landa-lana 2024ko martxoan egin du lantalde batek, zeina osatu baitute auditoriako teknikari batek eta auditore batek. Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzaren ere izan dute.

Lanketa honen emaitzak Nafarroako Kontseiluko lehendakariari azaldu zitzaizkion, egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Jarritako epea iraganda, ez zen alegaziorik aurkeztu.

Kontseiluko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Txosten honetako datu guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Eman-dako datuek eta ehunekoek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez biribildutako datuen batura.

## II. HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Finantzei eta lege-betetzeari buruzko fiskalizazioa egin da Kontseiluaren 2023ko ekitaldiko urteko kontuez, honako hauei buruzko iritzia emate aldera:

- Ea 2023ko ekitaldiko urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten duten Kontseiluaren 2023ko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoiei dagokienez ere, betiere jarraituz aplikatzeko den arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei.

- Ea Kontseiluaren 2023ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozen, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion araeekin.

Lanaren norainokoa Nafarroako Kontseiluaren 2023ko urteko kontuak dira, zeinek kontabilitateko egoera-orri hauek barne hartzen baitituzte:

- Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria.
- Egoeraren balantzea.
- Emaitza ekonomiko eta ondarekoaren kontua.
- Ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria.
- Diru-fluxuen egoera-orria.
- Oroitidazkia.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoak 2023ko ekitaldia hartzen du, baina beste ekitaldi batzuei buruz ere egin dira behar diren egiaztapenak, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

### **III. IRITZIA**

Nafarroako Kontuen Ganberak, 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak baliatuz, Kontseiluaren urteko kontuak fiskalizatu ditu. Kontu horiek barne hartzen dituzte 2023ko abenduaren 31ko balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoaren kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, diru-fluxuaren egoera-orria, aurrekontu-likidazioaren egoera-orria eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazkia. Orobat fiskalizatu du ea Kontseiluak 2023ko ekitaldian legeria bete ote duen.

#### **III. 1 URTEKO KONTUEI BURUZKO FINANTZA-AUDITORETZAKO IRITZIA**

Gure iritziz, 2023ko ekitaldiko urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten dute Kontseiluaren 2023ko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari buruz, bai eta data horretan amaitutako urte-ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoiei buruz ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoaren arau-esparruari jarraituz eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideei jarraituz.

#### **III.2 LEGERIA BETETZEARI BURUZKO FISKALIZAZIO-IRITZIA**

Gure iritziz, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Kontseiluaren 2023ko ekitaldiko jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta urteko kontuetan jasotako informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

### **IV. IRITZIAREN OINARRIA**

Kanpo-kontrolako erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioei jarraituz egin dugu fiskalizazioa, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioei buruzko ISSAI-ES 200 arauan eta legeria betetzearen fiskalizazioei buruzko ISSAI-ES 400 arauan ezarritakoari jarraituz; halaber, kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio-gida praktikoak (GPF-OCEX) erabili ditugu. Arau horien indarrez ditugun erantzukizunak aurrerago deskribatzen dira, gure txosteneko "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean, urteko kontuez eta legeria betetzeari buruzko fiskalizazioaz denaz bezainbatean.

Urteko kontuei eta legeria betetzeari buruzko gure fiskalizazioan aplikatzekoak diren etikaren eta independentzia-babesaren arloko eskakizunekin bat, entitatearekiko independenteak gara, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia ematen du finantzei eta legeria betetzeari buruzko gure iritzirako.

### **V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK**

Auditoretzako gai giltzarriak dira gure iritzi profesionalaren arabera munta handiena izan dutenak 2023ko urteko kontuez egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek urteko kontuen osotasunari buruzko auditoretzaren testuinguruan eta kontu orokorreari buruzko iritzia taxutzerakoan jorratu ditugu, eta ez dugu bereiz azalduko horien gaineko iritzirik.

Ondorioztatu dugu gure fiskalizazioan ez dagoela jakinarazi beharreko gai giltzarriak.

## VI. NAFARROAKO KONTSEILUAREN ERANTZUKIZUNA

Kontseiluko lehendakariaren erantzukizuna da urteko kontuak egitea, eta Osoko Bilkurari aurkeztu behar dizkio, onets ditzan. Kontseiluko legelariak prestatzen ditu kontuak, eta irudi zehatza eman behar dute Kontseiluaren aurrekontu-likidazioari, ondareari, finantza-egoerari eta emaitzei buruz, aplikatzekoa den informazio finantzarioko arau-esparruaren arabera. Halaber, hark bermatu behar du aipatu kontuetan agertzen diren jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin.

## VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Helburutzat dugu moduzko ziurtasun bat lortzea, urteko kontuetan oro har iruzur edo errore onoriozko akats materialik ez egoteaz, eta kontu horietan agerturiko jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat etortzeaz aplikatu behar den araudiarekin, erregulartasunaren fiskalizazio-txosten bat eman ahal izateko, gure iritzia jasotzen duena.

Arrazoizko segurtasuna segurtasun-maila handia da, baina ez du bermatzen kanpo-kontrolako organoei buruzko araudiari jarraituz egindako fiskalizazioak beti detektatuko duenik oker material bat edo ez-betetze nabarmen bat, halakorik dagoenean. Okerrak iruzurraren edo akatsen ondoriozkoak izan daitezke, bai eta legezkotasuna ez betetzearen ondoriozkoak ere, eta materialtzat hartzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta, eta, betiere, arrazoiz aurreikus badaiten txostenen erabiltzaileen erabaki ekonomikoetan eragina izanen dutela.

Kanpoko kontrol-organoei buruzko araudiaren arabeko fiskalizazio baten parte gisa, gure iritzi profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarrera mantentzen dugu auditoretza osoan zehar. Halaber:

- Identifikatu eta baloratu egiten ditugu iruzur edo oker baten ondoriozko akats materiala egoztearen eta legeak ez betetzearen arriskuak, arrisku horiei erantzuteko auditoretza prozedurak taxutzen eta aplikatzen ditugu, eta behar adinako eta behar bezalako auditoretza-ebidentzia lortzen dugu gure iritzia oinarri emateko. Iruzurraren ondoriozko akats material edo ez-betetze bat ez atzematearen arriskua handiagoa da errorearen ondoriozko oker material baten kasuan baino; izan ere, iruzurra dagoenean, tartean izan daitezke kolusioa, faltsutzea, berariazko omisioak, propio eginiko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.
- Barne-kontrolari buruz ezagutza muntaduna lortzen dugu fiskalizaziorako, inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatze aldera; ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi bat emate aldera.
- Ebaluatzen dugu ea aplikatutako kontabilitate-politikak moduzkoak ote diren, kontabilitate-estimazioak egokiak diren, bai eta egoki den kudeaketa-organoak emandako informazioa ere.
- Urteko kontuen aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioa barne, eta ea urteko kontuek zehatz irudikatzen dituzten transakzioak eta azpian dauden egitateak.

Erakundearen gobernu-organoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, planifikatutako auditoria-proben norainokoaz eta horiek egiteko uneaz aritzeko, bai eta fiskalizazioaren aurkikuntza esanguratsuez eta fiskalizazioan zehar barne-kontrolari buruz identifikatzen dugun edozein akats adierazgarri ere.

**VIII. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA**

Aurreko ekitaldietan egindako honako gomendio hauek indarrean diraute:

- *Kontseiluko plantilla organikoan dagoen legelariaren lanpostu hutsa deitzea, sortu zenetik zerbitzu-eginkizunetan bete baita, lanpostu hori behin betikoz betea izan dadin, aplikatzekoa den araudiaren araberako deialdi publikoan.*
- *Langile-gastuen 1. kapituluaren erregistratzea Kontseiluko kideek txostenen eta irizpenen egile gisa parte hartzeagatik jasotako konpentsazioak, norberaren lanetik zuzenean eratorritako kontra-prestazioak baitira.*
- *Kontabilitate- eta aurrekontu-kudeaketarako aplikazio informatiko bat ezartzea.*

Javier Marticorena Chapa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, araudi indardunak ezarritako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2024ko apirilaren 25ean

Kontuan Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

**1. GEHIGARRIA. NAFARROAKO KONTSEILUAREN 2023KO URTEKO KONTUEN LABURPENA****1.1 2023KO AURREKONTU-LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA***Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea*

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako eskubideak	Kobrantsak	Betetakoa (%)
4. Transferentzia arruntak	444.715	444.715	403.765	403.765	91
7. Kapital-transferentziak	28.000	28.000	612	612	2
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>472.715</b>	<b>472.715</b>	<b>404.377</b>	<b>404.377</b>	<b>86</b>

*Gastu-aurrekontuaren betetzea*

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Betebehar aitortuak	Ordainketak	Betetzea (%)
1. Langileria-gastuak	211.249	211.249	161.914	161.914	77
2. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	233.466	233.466	129.053	129.053	55
6. Inbertsio errealak	28.000	28.000	612	612	2
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>472.715</b>	<b>472.715</b>	<b>291.579</b>	<b>291.579</b>	<b>62</b>

**1.2 AURREKONTU-EMAITZA**

Kontzeptua	2022				2023			
	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebehar garbiak	Doikuntzak	Aurrekontu-emaiza	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebehar garbiak	Doikuntzak	Aurrekontu-emaiza
a. Eragiketa arruntak	391.064	293.597		97.467	404.377	291.579		112.798
b. Kapital-eragiketak								
c. Merkataritza-eragiketak								
1. Eragiketa ez-finantzarioak guztira (a+b+c)	391.064	293.597		97.467	404.377	291.579		112.798
d. Finantza-aktiboak								
e. Finantza-pasiboak								
2. Finantza-eragiketak, guztira (d+e)								
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaiza (I=1+2)	391.064	293.597		97.467	404.377	291.579		112.798
Doikuntzak								
3. Gastatutako kredituak, atxiki gabeko diruzaintzako gerakinarrekin finantzatuak								
4. Ekitaldiko finantzaketa-desbi-deratze negatiboak								
5. Ekitaldiko finantzaketa-desbi-deratze positiboak								
II. Doikuntzak, guztira (II=3+4+5)								
<b>Aurrekontu-emaiza doitu (I+II)</b>				<b>97.467</b>			<b>112.798</b>	<b>112.798</b>

## 1.3 DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2022	2023
1. (+) Funts likidoak	106.367	117.794
2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak	82	82
(+) Ekitaldiko aurrekontukoak	-	-
(+) Aurrekontu itxietakoak	-	-
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketekoak	82	82
(+) Merkataritzako eragiketekoak	-	-
3. (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	8.982	5.-78
(+) Ekitaldiko aurrekontukoak	-	-
(+) Aurrekontu itxietakoak	-	-
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketekoak	8.982	5.078
(+) Merkataritzako eragiketekoak	-	-
4. (+) Aplikatzeko dauden partidak	-	-
(+) Eginiko kobrantzak, behin betikoz aplikatzeko daudenak	-	-
(+) Eginiko ordainketak, behin betikoz aplikatzeko daudenak	-	-
I. Diruzaintzako gerakina, guztira (1+2-3+4)	97.467	112.798
II. Finantzaketa atxikiaren gaindikina	-	-
III. Saldo kobragaitzak	-	-
<b>IV. Atxiki gabeko diruzaintza-gerakina =(I-II-III)</b>	<b>97.467</b>	<b>112.798</b>

## 1.4 EGOERA-BALANTZEA

Aktiboa	2022	2023
<b>Ibilgetu garbia</b>	<b>17.286</b>	<b>10.894</b>
Altzariak eta tresneria	871	696
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak	12.879	10.198
Irudi korporatiboa	3.536	
<b>Aktibo zirkulatzaila</b>	<b>106.449</b>	<b>117.876</b>
Diruzaintza	106.367	117.794
Epe laburreko zordunak	82	82
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>123.735</b>	<b>128.770</b>

Ondare garbia eta pasiboa	2022	2023
<b>Ondare garbia</b>	<b>114.753</b>	<b>123.692</b>
Ekitaldiko emaitza	97.467	112.798
Beste ondare-gehikuntza batzuk, emaitzei egozteke daudenak	17.286	10.894
<b>Epe laburreko hartzekodunak</b>	<b>8.982</b>	<b>5.078</b>
Foru ogasun publikoa, PFEZa dela eta	8.982	5.078
<b>Ondare garbia eta pasiboa, guztira</b>	<b>123.735</b>	<b>128.770</b>



## 1.5 EKONOMIA ETA ONDARE EMAITZAKO KONTUA

Zorra	2022	2023	Hartzekoa	2022	2023
Langile-gastuak	154.121	161.914	Diru-sarrera finantzarioak	-	-
Kanpoko lanak, hornidurak eta zerbitzuak	133.868	129.053	Transferentzia arruntak	385.456	403.765
Amortizazioa	6.367	7.004	lbilgeturako dirulaguntzen emaitzen egozpena	6.367	7.004
<i>Aurrezkoa (emaitza positiboa)</i>	97.467	112.798			
<b>Guztira</b>	<b>391.822</b>	<b>410.769</b>	<b>Guztira</b>	<b>391.822</b>	<b>410.769</b>

## 1.6 ONDARE GARBIAK IZANDAKO ALDAKETEN EGOERA-ORRIA

Deskribapena	Sortutako ondarea	Bestelako ondare-gehiakuntzak	Guztira
Ondare garbia 2022ko ekitaldiaren bukaeran	97.467	17.286	114.753
2022ko ekitaldian ondare garbian izandako aldaketak	15.331	-6.392	8.939
Ekitaldian aitortutako diru-sarrerak eta gastuak	112.798	-7.004	
Jabea den entitatearekin egindako eragiketak	-97.467		
Ondare garbian izandako beste aldaketa batzuk		612	
<b>Ondare garbia, 2023ko ekitaldiaren bukaerakoa</b>	<b>112.798</b>	<b>10.894</b>	<b>123.692</b>

## 1.7 DIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2022	2023
<b>I. Kudeaketa-jardueretako diru-fluxuak</b>		
<b>A) Kobrantzak</b>	<b>252.853</b>	<b>260.953</b>
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	252.853	260.953
5. Kobratutako interesak eta dibidenduak	0	0
6. Beste kobrantza batzuk	0	0
<b>B) Ordainketak</b>	<b>-253.143</b>	<b>-248.914</b>
9. Hornikuntzak	40.762	42.527
10. Bestelako kudeaketa-gastuak	104.890	108.920
13. Beste ordainketa batzuk	107.491	97.467
<b><i>Kudeaketa-jarduerengatiko diru-fluxu garbiak (+A-B)</i></b>	<b>-290</b>	<b>12.039</b>
<b>II. Inbertsio-jardueretako diru-fluxuak</b>		
<b>C) Kobrantzak</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
1. Inbertsio errealak saltzea	-	-
<b>D) Ordainketak</b>	<b>-5.608</b>	<b>-612</b>
4. Inbertsio errealak erostea	5.608	612
<b><i>Inbertsio-jarduerengatiko diru-fluxu garbiak (+C-D)</i></b>	<b>-5.608</b>	<b>-612</b>
<b>VI. Diruaren eta aktibo likidoen gorakada/beherakada garbia (+II+III+IV+V)</b>	<b>-5.898</b>	<b>11.427</b>
Dirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren hasieran	112.265	106.367
Dirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren bukaeran	106.367	117.794

## 2. GEHIGARRIA. NAFARROAKO KONTSEILUA

Kontseilua, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan esaten den moduan, Nafarroako Foru Komunitateko organo aholku-emaile nagusia da, eta bere funtzioak autonomia organiko eta funtzionalarekin betetzen ditu, bere objektibotasun eta independentzia bermatze aldera.

Bere eginkizunetan diharduelarik, ordenamendu juridikoa gordetzen dela begiratuko du eta abaguneari eta komenigarritasunari dagozkien alderdiak baloratuko ditu, bai eta Administrazioak eraginkortasun handiagoa izatea ere bere helburuak betetzean.

Nafarroako Kontseiluari buruzko ekainaren 9ko 8/2016 Foru Legean ezartzen denez, Kontseilua bost kidek osatzen dute, izen aitortua dutenak eta gutxienez ere hamabost urteko lanbide-esperientzia izan eta nafar izaera politikoa daukaten juristen artean izendatuak.

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak hautatzen ditu Kontseiluko kideak, zortzi urterako, eta ezin dira berriz hautatu.

Gaur egun, Kontseiluko bost kideetako hiruk hamar urte baino gehiagoko antzinatasuna dute haien karguaren jardunean; beraz, gainditu egin dute araudian ezarritako zortzi urteko epea. Hortaz, luzapen-egoeran dauden, eta kargu horiek berritzeko prozedura abian jarri da.

Osoko Bilkura da Kontseiluaren gobernu- eta erabaki-organoa, kontseilukide guztiek osatua, zeinek gehiengo osoz hautatzen baitituzte lehendakaria eta idazkaria. Nafarroako Kontseiluko kideei ordaintzen zaie bertaratze-dieten bitartez eta txosten nahiz irizpenen egile gisa jarduteagatik ordainsarien bitartez.

## 3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Honako hauek osatzen dute, funtsean, Nafarroako Kontseiluari 2023an aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

- Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- 8/2016 Foru Legea, ekainaren 9koa, Nafarroako Kontseiluari buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 35/2022 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 90/2000 Foru Dekretua, otsailaren 28koa, Nafarroako Kontseiluaren Antolamendu eta Jardunbidearen Erregelamendua onesten duena.

#### 4. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaileentzat eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitezkeenak.

##### 4.1 EGINDAKO JARDUNA

- Kontseiluak 18 saio egin ditu, 2022an baino hiru gehiago, eta nahitaezko 39 irizpen, aurreko ekitaldian baino hiru gutxiago.
- Irizpenak Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuko lehendakaritzak eskatuta egin dira; horietako bat, toki-erakunde batek eskatuta, eta gainerakoak, Foru Administrazioiko departamentuek eskatuta.
- Gaiari dagokionez, nabarmentzen dira lege-betearazpenean jaulkitzen diren erregelamendu-proiektuei edo xedapen orokorren proiektuei eta horien aldaketei buruzko irizpenak, zeinek % 54 egiten baitute, eta 300.000 euro baino gehiagoko kalte-galerengatik kalte-ordain erreklamazioen ondoriozkoak (% 26).

##### 4.2 AURREKONTU-LIKIDAZIOA

- Kontseiluaren hasierako aurrekontuak gastu eta diru-sarrerei buruzko 472.715 euroko aurreikuspenak zeuzkan. Zenbateko hori bat dator behin betiko aurreikuspenekin.
- Kontseiluaren betebeharrak aitortuak 291.579 euro egin dute. Betetze-maila ehuneko 62koa izan da, eta osorik ordaindu dira. 2022. urtearekin alderatuta, ehuneko 1eko beherakada izan dute, batez ere ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntetan izandako gastuen eta inbertsioen jaitzieraren ondorioz.
- Taula honetan jasota datoz Kontseiluak 2022an eta 2023an izandako gastuen eta diru-sarreen banaketa portzentuala:

Gastuaren izaera	2022	2023	Finantzaketa-iturria	2022	2023
Langileak	52	56	Transferentzia arruntak	99	100
Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	46	44	Kapital-transferentziak	1	0
Inbertsioak	2	0			
	100	100		100	100

- Aitortutako eskubideek 404.377 euro egin dute; haien betetze-maila ehuneko 91koa izan da, eta osoki kobratu dira. Diru-sarrera horiek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarengandik jasotako transferentzietatik datoz. Horietatik, 403.765 euro gastu arruntak finantzatzera bideratu dira, eta 612 euro, berriz, inbertsio-gastuetara.
- Kontseiluak 112.798 euroko aurrekontu-superabita du, eta araudiarekin bat, Foru Ogasunari itzuli beharko dio, jarraian erakusten den bezala:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Diru-sarrerak, guztira	404.377
Gastuak, guztira	291.579
Aurrekontu-superabita	112.798
Nafarroako Foru Ogasunari itzuli beharrekoa, guztira	112.798

#### 4.3 LANGILERIA GASTUAK ETA ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO GASTU ARRUNTAK

- Kontseiluaren langile-gastuak 161.914 euro izan ziren 2023an, 2022an baino ehuneko bost gehiago. Kontseiluaren 2022<sup>1</sup>ko plantilla organikoa, aurreko urteko berbera, bi lanpostuz osatuta dago: legelari bat, funtzionarioa (lanpostu hutsa), eta lehendakariaren idazkari bat, zeina izendapen askeko behin-behineko langilea baita. 2023ko abenduaren 31n, Kontseiluan bi langilek ziharduten: legelari bat, Kontseilua eratu zenetik zerbitzu eginkizunetan dagoen Nafarroako Gobernuako funtzionarioa, eta lehendakariaren idazkari bat.

- Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 129.053 euro egin zuten 2023an; 2022an baino ehuneko 4 gutxiago.

- Kontseiluko kideei irizpen horiek egiteagatik ematen zaizkien ordainsariek 86.526 euro egin dute, eta bertaratze-dietek, berriz, 18.490 euro; guztira, aurreko ekitaldian baino ehuneko 16 gehiago. Txostenak prestatzeagatik ordainsariak gastuetako 2. kapituluan kontabilizatzen dira.

Kontseiluaren jarduera	2022	2023
Dieten zenbatekoa	15.910	18.490
Jaulkitako irizpenengatik ordainsaria	92.788	86.256

<sup>1</sup> 2023ko plantilla organikoa argitalpenerako izapidetu zen, baina azkenean ez zen NAOn argitaratu, arazo tekniko bat zela-eta.